

## **76 zorion, 'aitona kutuna'**

Martxelo Otamendi

*Euskaldunon Egunkaria*, 1997-11-11: 8.

"Ni ere Ameriketara joan nintzen, baina ez nuen dirurik egin", esan zenigun igandeko ekitaldian. Izan dira, nonbait, Andoainen zure aurretik joan eta dirua egin dutenak.

Dirua egin ez baina herria egin zenuen eta duzu, Martin, Ameriketan eta Euskal Herrian. Gaztetan utzi eta heldutakoan hartu zenuen Euskal Herria. Pozaldi handiak eta buruhauste latzak eman dizkizun herria da gurea, ezin bestela izan. Zure bizitzako azkenaldi honetan batean eta bestean ari zara gorazarrea jasotzen: ohorezko euskaltzain, Andoaingo seme kutun eta beste. Baina guk, etxe honetan, beste izendapen bat dugu gordea zuretzat, 76 urte betetzen dituzun egun gogoangarri honetan: aitona kutun. Ez dakidana da merezi ote dugun zure iloba kutun izatea; baina guk, gazteen ausardiarekin, hartua dugu erabakia. Kazetaritzan hasi berriak garen belaunaldion dekanoa zarelako. Urte asko egin dituzu kazetaritzan Venezuelan eta Euskal Herrian. Eta horretan segitzen duzu, besteak beste, hamabostero gure iritziko leihotik. Rokeroak bezala, kazetari peto-petoak jubilatzen ez zaretelako, kazetari jaio eta kazetari segitzen duzuelako. Kazetaritzarekin izaera landu duzuelako.

Asko zor dizugu EUSKALDUNON EGUNKARIAn, Martin. Hasierako urte haietan, haurdunaldian bezala erditzean ere, ate asko itxi zizkiguten. Zuk, ordea, zabaldu egin zenuen zurea eta beste asko irekitzen lagundu. Makina bat une garrantz jasana zara etxe honen aldeko jardunean. Pozaldiekin gozatuko ahal genizkizun!!!

Garbi zeneukan proiektu haren garrantzia. Prentsa nazional sendo batek duen garrantziaz aspaldi ohartu zinelako. Argi zeneukan prentsa nazional sendorik gabe ezin dela herri bat eraiki. Horregatik guztiagatik, Martin, zordun gara zurekin etxe honetan. Administrazio Kontseiluko lehendakari zaitugu hasieratik, eredugarria den jardunean. Mila esker eta zorion, aitona kutuna.